

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIKO GOBERNU  
SALAREN OSOKO BILKURAK 2024KO ABENDUAREN 13EAN HARTUTAKO  
ERABAKIAK**

**BERTARATUAK:**

**Presidente jn.**

Ignacio José Subijana Zunzunegui jn.

**Ondoko jaun-andreak.**

Luis Ángel Garrido Bengoechea jn.

Garbiñe Biurrun Mancisidor and.

María Mercedes Guerrero Romeo and.

Reyes Goenaga Olaizola and.

Aner Uriarte Codon jn.

Alfonso Álvarez-Buylla Naharro jn.

Emilio Lamo de Espinosa Vázquez de Sola jn.

Juncal Andrés Gallego jn.

Ignacio Sánchez Morán jn.

Julia Sauri Martín and.

Irene Rodríguez del Nozal and.

**Gobernu idazkari andrea:**

Blanca Rosa Barbero Blanco and.

**LEHENENGOA. - AURREKO BILERAREN AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA. -**

Bileraren akta irakurri ondoren, aho batez onartu da.

**BIGARRENA. - AURREKO BILERAKO ERABAKIAK BETEARAZTEA. -**

Aurreko bileran hartutako erabakiak bete direla jakinarazi zaio Salari.

**ERABAKIAK**

**1.- Magistratuak eta epaileak**

## **1.1 ESKERRAK EMATEA AGINTALDIA AMAITZEN ZAIEN GOBERNU-SALAKO KIDEEI.**

Gobernu Salaren osoko bilkurak eskerrak eman nahi dizkie Ana García Orruño andreari, Pedro Santiago Romero Buck-Arstad jaunari, M<sup>a</sup> Belén González Martín andreari eta Ariane Tapia Trueba andreari, hots, kargua utzi duten kideei, bost urteko agintaldian egindako lanagatik eta erakutsitako dedikazio bereziagatik.

## **1.2 GOBERNU SALAREN BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA.**

Jarraian, Auzitegietako Gobernu Organoei buruzko uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, Gobernu Salaren Batzordeko kide berrien bozketari ekin zaio, presidente jauna abstenitu egin da, eta honako emaitza hau eman du:

Garbiñe Biurrun Mancisidor and.ak	2 boto
Luis Angel Garrido Bengoechea jn.ak	9 boto
M <sup>a</sup> Mercedes Guerrero Romeo and.ak	10 boto
Reyes Goenaga Olaizola and. ak	8 boto
Alfonso Alvarez-Buylla Naharro jn.ak	9 boto
Emilio Lamo de Espinosa Vázquez de Sola jn.ak	10 boto
Ignacio Sánchez Morán jn.ak	5 boto
Irene Rodríguez del Nozal and.ak	boto 1
Julia Sauri Martín and.ak	5 boto
Juncal Andrés Gallego and.ak	boto

Berdinketa gertatu da Ignacio Sánchez Morán eta Julia Sauri Martín bokalek lortutako boto kopuruan, hortaz, Auzitegietako Gobernu Organoen 1/2000 Erregelamenduko 3.4 artikulua araber, bidezkoa da batzordeko kide izendatzea karrera judizialeko eskalafoian posturik onena duena, eta Ignacio Sánchez Morán jauna da posturik onena duena.

Presidente jaunak Justizia Auzitegi Nagusiaren GOBERNU SALAREN BATZORDEKO KIDE hauek izendatu ditu:

Luis Angel Garrido Bengoechea jn.  
M<sup>a</sup> Mercedes Guerrero Romeo and.  
Reyes Goenaga Olaizola and.  
Alfonso Alvarez-Buylla Naharro jn.  
Emilio Lamo de Espinosa Vázquez de Sola jn.  
Ignacio Sánchez Morán jn.

Era berean, legeak aginduta, Gobernu Salaren Batzorde hori Bilboko epaile dekanoko magistratu Aner Uriarte Codón jaunak osatzen du.

### **1.3 ERAKUNDEARTEKO BATZORDE MISTOKO KIDEAK BERRITZEA**

Presidente jaunak Osoko Bilkurari planteatu dio Erakundearteko Batzorde Mistoa osatuko duten kide berriak hautatzeko bozketa egiteko aukera.

Ondoren, bozketa egin da, eta presidente jauna abstenitu egin da. Hona hemen emaitzak:

Garbiñe Biurrun Mancisidor and.ak	boto 1
Luis Angel Garrido Bengoechea jn.ak	6 boto
M <sup>a</sup> Mercedes Guerrero Romeo and.ak	8 boto
Reyes Goenaga Olaizola and. ak	3 boto
Alfonso Alvarez-Buylla Naharro jn.ak	boto
Emilio Lamo de Espinosa Vázquez de Sola jn.ak	9 boto
Ignacio Sánchez Morán jn.ak	4 boto
Irene Rodríguez del Nozal and.ak	boto
Julia Sauri Martín and.ak	2 boto
Juncal Andrés Gallego and.ak	3 boto
D. Aner Uriarte Codón	boto

ERAKUNDEARTEKO BATZORDE MISTOA honako kide hauek osatuko dute:

Luis Angel Garrido Bengoechea jn.ak  
M<sup>a</sup> Mercedes Guerrero Romeo and.ak  
Emilio Lamo de Espinosa Vázquez de Sola jn.ak  
Ignacio Sánchez Morán jn.ak

### **1.4 GOBERNU SALAREN BOKALTZAK ANTOLATZEA.**

Osoko Bilkurak Gobernu Sala honetako kideen antolaketa eta funtzionamendua aztertu ditu. Bokalak 2021eko azaroaren 26ko Osoko Bilkuraren Erabakiaren bidez eratu ziren, eta honako hauek dira:

*1.- Antolakuntza judiziala, honako hauek osatua:*

Reyes Goenaga Olaizola and.ak  
Aner Uriarte Codón jn.ak  
Ignacio Sánchez Morán and.ak  
Julia Sauri Martín jn.ak.

Helburu nagusia: antolaketa-eraginkortasunari buruzko Legea indarrean jartzeko beharrezkoak diren gobernu-neurri zehatzak prestatzea. Horretarako, presidenteak lan-kargen dokumentu bat egingo du, bereziki Emakumearen aurkako Indarkeriaren Atala eta Haurren, Familiaren eta Gaitasunaren Atala eratzeari dagokionez.

*2.- Justiziaren digitalizazioa, honako hauek osatua:*

- Irene Rodríguez del Nozal and.ak
- Aner Uriarte Codón jn.ak

Helburu nagusia: Avantius sistema prozesalaren garapenaren jarraipena egitea, 2025erako aurreikusitako eguneratzeetarako gorabeherak eta proposamenak helaraziz.

*3.- Eraikinak – zerbitzu publikoa ematea – Bulego Judiziala, honako hauek osatua:*

- Reyes Goenaga Olaizola and.ak
- M<sup>a</sup> Mercedes Guerrero Romeo and.ak
- Aner Uriarte Codon jn.ak

Helburu nagusia: eraikin jasangarri eta irisgarrien planaren gauzatzearen jarraipena egitea. Aipamen berezia egingo zaie Barroeta Jauregian unitate judizialak garatzeko proposamenei, Buenos Airesko eraikina zigor-arloko ordenari egokitzeari, Mapfre eraikina gauzatzearen jarraipenari eta Gasteizko eta Donostiako eraikinen kokapenari. Era berean, irisgarritasun fisikoari dagokionez, desgaitasuna duten pertsonentzako irisgarritasun-plana betetzen dela egiaztatzea.

*4.- Prestakuntza, honako hauek osatua:*

- Juncal Andrés Gallego and.ak

- Emilio Lamo de Espinosa Vázquez de Sola jn.ak (Justizian hezte)
- Garbiñe Biurrun Mancisidor and.ak

Helburu nagusia: Prestakuntza Plan Deszentralizatuan beharrezko aldaketak egitea, ikastaroak adierazitako egunetan egin ahal izateko, bai eta ikastaroetara gehiago joatea eta ikastaroak uztea murriztea ahalbidetzeko ere.

5.- *Justizia-sistemeekin lankidetzan aritzeko zerbitzuak*, honako hauek osatua:

- Alfonso Alvarez-Buylla Naharro jn.ak
- Julia Sauri Martín and.ak

Helburu nagusia: Justizia eta Giza Eskubideen Sailarekin koordinatzea, justizia leheneratzaileko, biktimei arreta emateko eta zigor eta neurri alternatiboak kudeatzeko zerbitzuak hobeto emateko.

6.- *Euskara*, honako hauek osatua:

- Garbiñe Biurrun Mancisidor and.ak
- Alfonso Alvarez-Buylla Naharro jn.ak

Helburu nagusia: euskarazko epaiketen plan pilotuan txertatutako azpiproiektuak ezartzea.

## **1.5 BIZKAIKO PROBINTZIA AUZITEGIKO ATALEN OSAERA, BANATZEKO ARAUAK ETA PONENTZIAK ESLEITZEA 2025ERAKO**

2025erako Bizkaiko Probintzia Auzitegiko Atalen osaerari eta banatzeko arauari eta ponentziak esleitzeari buruzko proposamenen berri eman zaio Salari, eta hark bidali du, Auzitegietako Gobernu Organoen 1/2000 Erregelamenduaren 4b) artikuluan eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 152.1.2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Salak, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki du proposamena onartzea, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari aurkeztea eta, jarduketa judizialen alderdi osagarriari buruzko 1/2005 Erregelamenduaren 37. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 159. 2. artikuluan eta Auzitegiaren Gobernu Organoen 1/2000 Erregelamenduaren 12.6 artikuluan aurreikusitako baldintzetan hedatzea.

**1.6 PRESIDENTEAK 2024KO AZAROAREN 18AN HARTUTAKO ERABAKIA BERRESTEA, BOTERE JUDIZIALAREN LEGE ORGANIKOAREN 160.7. ARTIKULUAREKIN BAT HARTUTAKOA, PREMIAZKO ARRAZOIEI DAGOKIENEZ, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN SALAKO ATALEN OSAERARI, BANAKETA-ARAUETAKO ETAKO PONENTZIEN ESLEIPENARI BURUZKOA, 2025erako**

Salak aho batez erabaki du presidente jaunak 2024ko abenduaren 5ean hartutako erabakia berrestea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluekin bat, presazko arrazoiei dagokienez. Honela dio, hitzez hitz:

*“Kontua emanda Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salako lehendakari jaunaren aurreko jakinarazpena jaso dela, 2025. urteko gaiak hiru Atalen artean banatzeko eta ponentziak eta ordezkien esleitzeko arauak proposatzeko idazkia erantsita, 2024ko azaroaren 13an bidalitakoak ordezkia ditzaten. Azken horietan, transkripzioakatsak egin baitziren, batez ere gaien eta ponentzien banaketari eragiten ziotena. Gobernu Salak onar ditzan; erregistra bedi.*

*Hasieran aurkeztutakoak 2024/11/22an egindako Batzordearen 1.2 Erabakiaren bidez onartu zirenez, eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari helarazi zitzaizkionez, onar eta argitara zitzan, Auzitegiaren Gobernu Organoen 1/2000 Erregelamenduaren 12.6 artikuluen arabera, bidezkoa da, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 160.7 artikuluan presazko arrazoiei buruz ezarritakoarekin bat etorritik, Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren Atalen artean gaiak banatzeko arauak buruz aurkeztutako proposamen berria onartzea erabakitzea, baita ponentziak esleitzeko eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari aurkeztea ere, eta jarduera judizialen alderdi osagarriari buruzko 1/2005 Erregelamenduaren 37. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 159.2 artikuluan eta Auzitegiaren Gobernu Organoen 1/2000 Erregelamenduaren 12.6 artikuluan aurreikusitako baldintzetan hedatzea.*

*Erabaki honen edukiaren berri eman bedi Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salak egingo duen hurrengo bileran.*

*Presidente jaunak erabaki, agindu eta sinatzen du, eta nik, Gobernu idazkariak, fede ematen dut.”*

Osoko Bilkurak erabaki du Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari helaraztea, eta jarduketa judizialen alderdi osagarriari buruzko 1/2005 Erregelamenduaren 37. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 159.2 artikuluan eta Auzitegiaren Gobernu

Organoen 1/2000 Erregelamenduaren 12.6 artikuluan aurreikusitako baldintzetan hedatzea.

## **1.7. BILBOKO LEHEN AUZIALDIKO EPAILEEN BATZARRA, LEHEN AUZIALDIKO 17. ZK.KO EPAITEGIA ABIAN JARTZEAREN ONDORIOZ LEHEN AUZIALDIKO ESKUMENAK BERRIKUSTEARI BURUZKOA, ETA BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAREN IKUSKARITZA-ZERBITZUKO IKUSKARITZA-UNITATE MISTO ZIBILAK BILBOKO LEHEN AUZIALDIKO 17. ZK.KO EPAITEGIARI BURUZ EGINDAKO PROPOSAMENA**

Bilboko Lehen Auzialdiko Epaileek 2024/12/09an egindako Batzarraren aktaren berri eman zaio Salari. Honela dio hitzez hitz:

*Gai-zerrendako puntu bakarrari dagokionez (LEHEN AUZIALDIKO EPAITEGIEN ESKUMENAK BERRIKUSTEA, BILBOKO LEHEN AUZIALDIKO 17 ZK.KO EPAITEGIA ABIAN JARRI DENEZ), epaile dekanook eman du Gobernu Salaren osoko bilkurarako txosten-eskaeraren berri, eta Batzarraren deialdiarekin batera banatutako estatistikak osatzen dituztenak banatu dira, 2023an eta 2024an Bilboko Auzialdiko Epaitegiek izandako lan-kargari buruz. Batzarrak ñabardura bat egin du estatistika horiei buruz: banatutako gaiak ez dira banatutzat zenbatzen, bai banatuta baina ez erregistratuta.*

*16 zk.ko Epaitegiko magistratuak adierazi du bere titulartasuneko epaitegiaren eskumena aldatzearen aurka dagoela. Lehen Auzialdiko 14 zk.ko epaitegiak dituen arazoak ez dituela konponduko argudiatu du, eta 16 zk.ko epaitegia bera hondoratuko duela, bere antolaketan erabateko nahasmendua eraginez. Gaineratu du ulertzen duela espezializatu gabeko auzialdiak jasaten duen lan-karga handia, eta ez dagoela 17 zk.ko epaitegi sortu berria gai horretaz arduratzearen aurka. Baina familiaren eskumena aldatzearen aurka dagoela berretsi du, eta adierazi du 2024ko uztaillean Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Batzorde Iraunkorrek Bilboko Lehen Auzialdiko 18 zk.ko Epaitegia sortzea aurreikusi duela, desgaitasunaren arloan eskumena duena. Hori dela eta, proposatu du 17 zk.ko Epaitegia espezializatu gabeko auzialdian aritzea, hiru Familia Epaitegiak dauden bezala geratzea, eta 14 zk.ko Epaitegiari errefortzua mantentzea. Gaineratu du, halaber, azken organo judizial horren plantilla zabalaren bitartekotasunaren arazoa, 14 funtzionarioekin, berorren atzerapenaren arrazoi gisa.*

*3 zk.ko magistratuak 17 zk.koari buruzko eskaera eskertu du, baina adierazi du Bilboko Auzialdia gaindimentsionatuta dagoela, eta epaile bakoitzak dagokion lanaren bikoitza hartzen duela bere gain. Adierazi du moduluaren % 200era iritsiko dela, eta bere epaitegian 1.000 demanda erregistratu gabe daudela. Bere ustez, lan-osasunerako eskubidea du, eta Bilboko jurisdikzio zibilak, gutxienez, bost epaitegi gehiago behar ditu, baita errefortzuko epaile bat ere epaitegi berri bakoitzean.*

*16 zk.ko magistratuak azpimarratu du sistema aldatzea dementzuala dela, hilabete batzuen buruan desgaitasunaren arloko epaitegi bat sortuko baita. Nolanahi ere, aldaketa emanez gero, horrek familia-epaitegi guztiei eragin behar diela uste du. 3. zk.ko magistratuak berretsi du bere lan-osasunaren aurkako atentatua egin dela, eta uste du funtzionarioen bitartekotasunaren arazoa Autonomia Erkidegoari dagokiola, eta konponbidea Gobernu Salak galdegin behar duela, aldeztu aurreko hautaketa-prozedura administratiboak egiaztatuz. Ondorioztatu du ezin dela izan epaitegiak bitarteko langileen hezitzaile bihurtzea.*

*14. zk.ko magistratuak adierazi du organo judizial horrek egiturazko arazo bat duela, astelehen, asteazken eta ostiralero egin behar baititu barneratzeak, goiz osoan zehar, bai eta astearteetan eta ostegunetan eguna eta ordua finkatzea ere. Zehaztu du konplexuena, epaitegia oztopatzen duena eta denbora gehien kentzen diona barneratzeak direla. Adierazi duenez, 2024ko abenduaren 3an 4.562 auzigai sartu dira, eta horietatik 1.500 baino gehiago nahigabeko*

barneratze psikiatrikoak dira, horiei eskainitako egun bakoitzean 12 eta 15 artean. Zalantzak ditu etorkizuneko Lehen Auzialdiko 18 zk.ko Epaitegiaren eskumena desgaitasunarena ote den, Gobernu Salaren erabakiren batetik abiatuta.

6 zk.ko magistratuaren ustez, 17 zk.ko eskumena aukeratu behar bada, goragoko gobernu-organoak aukeratu behar du, eta horrek aukera baten alde egin behar du, eta ez beste baten alde. 11 zk.ko magistratuak gaineratu du denak ados daudela 17 zenbakiaren sorrera ez dela nahikoa, eta premiaz beste organo bat behar dela, lan-karga bideraezina baita. 14 zk.ko magistratua ados dago horrekin, eta ñabartu du prozedura zaharrak berrikusteko epea 2029ra arte luzatu dela. Batzarrak epaitegi berriak eraman behar duen gaiari buruzko iritzirik ez ematea erabaki du, eta beste epaitegi bat sortzeko eskatu du. 9 zk.ko magistratuak, 14 zenbakian lan egin duenak, adierazi du 14 zk.ko bereko errefortzu-batzordearen lan-karga ez dela nahikoa organoari laguntzeko.

Ondoren, 5, 6, 14 eta 16 zk.ko Familia eta Desgaitasuneko magistratuekin aztertu dira auzigai horiek beren artean gaur egun banatzeko dauden aukerak. 16 zk.ko magistratuak berretsi du ez dela ezer konponduko, eta arazo gehigarri bat sortuko dela. 5 zk.ko magistratuak dio onartezina izango dela familiaren arlo guztia bi epaitegiren artean banatzea Bilbo bezalako barruti judizial batean. Uste du organo horien lan-karga gaizki barematuta dagoela, betearazpenak ez direla kontuan hartzen sartutako auzigaietan, bigarren mailako epaitegi bihurtzen dituztela, eta (eta halaxe dio 6 zk.ko magistratuak ere) ziurtatzen du ematen dituzten ebazpenen kopurua % 100etik gorakoa dela. Bere ustez, 16 zk.ko familiaren gaia kentzeak joan den mendeko garai batera itzuliko ditu, oraindik 14 zenbakia sortu gabe zegoenean, desabantaila argi batekin bi familia-epaitegi dituzten beste barruti judizialen aldean, eta askoz biztanle gutxiago.

Subsidiarioki, hainbat aukera azaldu dituzte, hala nola epaitegi guztiek astero, lau asteko txanda batean, nahigabeko barneratze psikiatrikoak beren gain hartzea, edo errefortzu-batzordea gai horretan zentratzea, astero epaitegiko titularrarekin txandakatuz. 14 zk.ko magistratuak berretsi du hori dela oztopatzen dituen benetako arazoa. Ondorioztatu dute, berariazko epaitegi bat sortzen ez bada, denak direla, eta orain arte izan direla, 14 zk.koaren egiturazko arazo baterako adabakiak. Azkenik, nabarmendu dute desgaitasunaren eta familiaren arlo osoa oso gai sentikorrek direla, eta organo bakoitzaren balizko atzerapenak (eztabaidan dauden aldaketek eragingo luketena) eragin sozial zabala izango duela. Familia-magistratuek azpimarratu dute, eremu horretan bi epaitegi geratuz gero, familia-agendetan urtebete baino gehiago atzeratuko dela, ikustaldirako zitazioa egiten denetik.

Bertaratutakoek beste gairik proposatu ez dutenez, Batzar hau amaitutzat eman da. Nik, idazkariak, horren fede ematen dut. ”

Ondoren, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Ikuskaritza Zerbitzuko Ikuskaritza Unitate Misto Zibilak Bilboko Lehen Auzialdiko 14 zk.ko Epaitegiari buruz egindako proposamenaren berri eman zaio Salari, bai eta Aner Uriarte Codón jaunak egindako ponentziaren berri ere. Aner Uriarte Codón jauna izendatu zuten txostengile, 2024ko azaroaren 28an presidente jaunak hartutako erabakiaren bidez, ponentzia horren berri eman zezan. Hona hemen, hitzez hitz:

#### “LEHENENGOA.- TXOSTEN HONEN ESKAERA:

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Ikuskaritza Zerbitzuak txosten bat egin zuen 2024ko azaroaren 14an, eta, bertan BJLOren 98. artikuluko izapideak hasteko proposamen bat jaso zen, organo horren Osoko Bilkurak 2021eko martxoaren 3an hartutako erabakia aldatzeko. Erabaki horretan, Lehen Auzialdiko 16 zk.ko Epaitegiaren (garai hartan sortu berria zena) auzigaiez arduratzeko eremua finkatzen zen, eta familia-gaiez arduratzera igarotzen zen. Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko lehendakariaren 2024ko azaroaren 28ko Erabakiaren bidez, horri buruzko ponentzia bat eskatu zitzaion sinatzen duenari.

Halaber, abenduaren 31n jarriko da martxan Bilboko Lehen Auzialdiko 17 zk.ko Epaitegia, eta haren eskumena finkatu egin behar da. 2024ko abenduaren 9an, Auzialdiko Magistratuen Batzorde Sektoriala egin zen gaiari buruz. Batzorde horren akta, txosten honekin batera, Gobernu Salari bidali zitzaion, onar zezan.



## **BIGARRENA.- AUZIALDIAREN EGUNGO EGOERA BILBON:**

*Gaur egun, lehen auzialdiko 16 epaitegi daude Bilbon, lau taldetan banatuta:*

- 1.- 1etik 4ra eta 7tik 13ra bitarteko epaitegiak ez dira epaitegi espezializatuak.*
- 2.- 5, 6 eta 16 zk.ko epaitegiak familia-epaitegiak dira, eta Kode Zibilaren I. liburuko IV. eta VII. tituluekin zerikusia duten gaiez baino ez dira arduratzen.*
- 3.- 14 zk.ko Epaitegia, Kode Zibilaren I. liburuko VIII., IX. eta X. tituluekin zerikusia duten gaiez arduratzen dena. Oraindik ere arduratzen da organo horretan sarrera duten eta bertan aurrekaria duten familia-prozedurez (Epaitegia familiaren gaiaren % 20az arduratu zen Bilbon 2021eko martxora arte).*
- 4.- 15. zk.ko epaitegia, kontratazio-baldintza orokorren banakako akzioez ardura eskusiboa eta baztertzaila izanik, hipoteka-bermedun maileguen esparruan, mailegu-hartzailea pertsona fisikoa denean.*

*Halaber, gaur egun, aipatutako organo judizialek honako errefortzu hauek dituzte:*

- 1.- 3 zk.ko epaitegia indartuta dago Eskola Judizialeko praktiketako lankide batekin, zeinak magistratu titularren lan-kargaren % 40ari aurre egiten baitio.*
- 2.- 14. zk.ko Epaitegia indartuta dago funtzioak aldatu gabeko zerbitzu-eginkizun batekin eta hori berritzearen zain dago (Gobernu Salak eskatu du). Familia-arlo guztiaz arduratzen da, eta desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko arloan 10 ikustaldi egiten ditu astero.*
- 3.- 15. zk.ko Epaitegia indartuta dago funtzioak aldatu gabeko bi zerbitzu-eginkizunekin, eta horiek berritzearen zain daude (Gobernu Salak eskatu du). Horiek 104 auzigai ebazten dituzte, hilean behin eguna eta ordua finkatuz.*

## **HIRUGARRENA.- SARRERAKO ESTATISTIKAK**

*Bilboko Lehen Auzialdiko Epaitegietak sarrera-zenbakiak, 2023an, honako hauek izan ziren:*

- 1.- Epaitegi ez-espezializatuak (sarrera-modulua: 1.200 auzigai urtean, borondatezko jurisdikzioa eta betearazpenak barne):*

- . - 1. zk.: 1.547 auzigai, % 146.*
- . - 2. zk.: 1.810 auzigai, % 171.*
- . - 3. zk.: 2.077 auzigai, % 190.*
- . - 4. zk.: 1.725 auzigai, % 165.*
- . - 7. zk.: 1.776 auzigai, % 163.*
- . - 8. zk.: 1.772 auzigai, % 169.*
- . - 9. zk.: 1.821 auzigai, % 169.*
- . - 10. zk.: 1.628 auzigai, % 148.*
- . - 11. zk.: 1.779 auzigai, % 170.*
- . - 12 zk.: 1.781 auzigai, % 174.*
- . - 13. zk.: 1.737 auzigai % 168.*

- 2.- Familia-epaitegiak (sarrera-modulua, 1.323 auzigai urtean, borondatezko jurisdikzioa eta betearazpenak barne):*

- . - 5. zk.: 715 auzigai, % 58.*
- . - 6. zk.: 750 auzigai, % 63.*
- . - 16. zk.: 542 auzigai, % 42.*

- 3.- Desgaitasun-epaitegia (sarrera-modulua: 704 gai urtean, borondatezko jurisdikzioa barne):*

- . - 14 zk., 2.176 auzigai, % 317.*

- 4.- Banakako akzioen epaitegia. KBO (modulurik gabe):*

- . - 15. zk.: 4.144 auzigai, % 375.*

*Bilboko Lehen Auzialdiko Epaitegien sarrera zenbakiak honako hauek izan ziren 2024an (bilakaera egiaztatzeko hiru estatistika eskaintzen dira: lehen seihilekokoak, lehen hiru hiruhilekoetakoak eta 2024ko abenduaren 4an sartutako gaiak):*

- 1.- Epaitegi ez-espezializatuak (sarrera-modulua: 1.200 auzigai urtean, borondatezko jurisdikzioa eta betearazpenak barne):*

- . - 1. zk.: 1.099; 1.362, eta 1.929.*
- . - 2. zk.: 1.025; 1.376, eta 1.913.*
- . - 3. zk.: 946; 1.362, eta 1.910.*
- . - 4. zk.: 864; 1.246, eta 1.871.*

- . - 7. zk.:904; 1.246, eta 1.909.
- . - 8. zk.: 1.119; 1.604, eta 1.896.
- . - 9. zk.:975; 1.423, eta 1.904.
- . - 10. zk.: 1.021; 1.444, eta 1.912.
- . - 11. zk.: 1.128; 1.603, eta 1.881.
- . - 12. zk.: 1.157; 1.642 eta 1.886.
- . - 13. zk.:916; 1.423, eta 1.910.

2.- Familia-epaitegiak (sarrera-modulua, 1.323 auzigai urtean, borondatezko jurisdikzioa eta betearazpenak barne):

- . - 5. zk.: 420; 556, eta 557
- . - 6. zk.: 368; 487, eta 555
- . - 16.- 5. zk.: 420; 556, eta 557
- . - 6. zk.: 368; 487, eta 555
- . - 16:310; 429, eta 516 zk.:310; 429, eta 516 zk.

3.- Desgaitasun-epaitegia (sarrera-modulua: 704 gai urtean, borondatezko jurisdikzioa barne):

- . - 3.906 zk. 2024ko urriaren 16an izapidetzen ari ziren auzigaiak. Magistratu titularrak 4.562 auzigairen berri eman zuen 2024ko abenduaren 3an.

4.- Banakako ekintzen epaitegia. KBO (modulurik gabe):

- . - 15. zk.: 11.396; 12.115, eta 15.220.

**LAUGARRENA.- PROPOSAMENAK:**

Azaldutako guztia abiapuntutzat hartuta, bi alderdi baloratu behar dira: batetik, sortu berri den 17. zk.ko Epaitegia arduratuko den gaia, eta, bestetik, Ikuskaritza Zerbitzuaren proposamena, hau da, Familia Arloko 16. zk.ko Epaitegiaren eskumena aldatzea (Kode Zibilaren I. liburuko IV. eta VII. tituluak), eta horren ordeztasunaren arlokoa jartzea (Kode Zibilaren I. liburuko VIII., IX. eta X. tituluak).

Lehenengo gaiari dagokionez, lehen adierazitako kopuruek erakusten dute espezializatu gabeko lehen auzialdiko hamaika epaitegiek beren moduluen % 170 artean mugitzen den lan-karga jasaten dutela (2023an), eta urte honetan % 200 inguruko proiektzioa hurbiltzen dela. Horiek indartzeko aukera gutxi dituzte. Alde batetik, 15. zenbakiaren espezializazioa denboran zehar mantenduko dela aurreikusten da (hala eskatu du Gobernu Salak), edo, gutxienez, sartutako auzigaien poltsa handi eta neurrigabea ebazteko duen dedikazio eskusiboak iraungo duela. Bestetik, iraganean hainbat saiakera egin diren arren, ezin da hamaika organo judizialentzako errefortzu eraginkorrik antolatu, ezin baitira LAEak horretara bideratu, eta eskola judizialeko ikasleak bideratzeko azken eskaerak atzera bota dira. Hori dela-eta, gero eta handiagoa den lan-karga arintzeko bide bakarra gai horretaz arduratuko den hamabigarren epaitegia eratzea da. Jakina, ez da nahikoa eta organo judizial gehiago sortu beharko lirateke, baina beste Epaitegi bat azken finean abian jartzea lortu denez, Salak Lehen Auzialdiko 17 zk.ko Epaitegia espezializatu gabeko gaiaz arduratzearen aldeko txostena ematea proposatzen da. Hala ere, behin martxan jarrita, beste Batzorde Sektorial bat deituko da espezializatu gabeko auziaren eremuan, Epaitegi berrira bideratutako banaketa aldi baterako aldatzeko.

Bigarren auzia zailagoa da. Ikuskaritza Zerbitzuak argudiatu duenez, iradoki duen aldaketa gertatu izan balitz, 2024ko lehen seihilekoko datuekin, hiru familiako epaitegiek moduluen % 55eko sarrera izan beharrean, eta 14 zk.ko epaitegiak % 311koa izan ordez; geratuko liratekeen bi familiako epaitegiek, 5 eta 6 zk.ko epaitegiek, moduluen % 82,5eko sarrera izango lukete, eta proiektatutako desgaitasuneko epaitegi biek, berriz, % 155,5ekoa. Hala ere, ondorio hori zehaztu beharko litzateke, honako arrazoi hauengatik:

1.- Lehenik eta behin, magistratuek Batzorde Sektorialean adierazi zuten bezala, Bilboko barruti judiziala desorekatuta geratuko litzateke familiaren arloan, gainerako bi epaitegiak gaia % 50ean elkarren artean banatuko balute. Sarrerako moduluen zuzentasunari eta sartutako gaien errealitateari buruzko zalantzak azaldu dira dagoeneko: betearazpenak ez direla zenbatzen ari adierazi da, eta horiek, berez, familiaren arloan, lan konplexua dakartela. Hau da, sarreraren % 55 zenbatzen ari da, lan-kargaren errealitatea handiagoa denean. Halaber, asteko seinalamenduen erritmo konstantea ageri da, agenda osoko bi egunekin eta % 100etik gorako ebazpen-moduluekin. Epaitegi bakoitzean sarrera-kopuruak % 33,33tik % 50era handitzeko

arriskuak agendaren atzerapenaren balizko pronostikoa dakar, eta adingabeak tartean dauden adostasunik gabeko familia-arloko prozesuen kasuan, gaiaren espezialitatea kontuan hartuta kezagarria dela aurreikusten da. Era berean, ez da ezagutzen Bilboko barruti judizialen antzekorik, bertako biztanle-kopurua duenik eta probintziako hiriburu izanda ere (horrek indartutako eskumena dakar), bi familiako epaitegi bakarrekin. Laburbilduz, 14 zk.ko egiturazko arazoa konpontzen ariko litzateke desgaitasuneko prozesuei aurre egiteko orduan, baina nabarmen okertuko litzateke familia-zuzenbideari dagokion guztia. Gaur egun, talde psikosozialaren txosten baten zain egoteak ekar ditzakeen atzerapenak salbu, lehen auzialdian ebatz daitezke adostasunik gabeko prozesuak, epaitegira banatzen direnetik hiru edo lau hilabeteko batez besteko epe arrazoizko batean, eta horri Epaitegi Dekanoan banatzeko aldia gehitu behar zaio. Aldaketak ekarriko lukeen lan-gehikuntzak urtebete baino gehiago atzeratu lezake agenda, ebazpen judizialaren zain denbora asko irauten duten familia-gatazketan izan dezakeen eragin sozialarekin.

2.- Bigarrenik, Lehen Auzialdiko 16 zk.ko Epaitegiak, familia-prozedurak izapidetzen dituen egitura izanik, desgaitasunaren gaia bere gain hartuko luke % 50ean, horretarako prest egon gabe. Kontuan izan behar da 14. zk.ko Epaitegiko funtzionarioen plantillak bikoiztu egiten duela gainerako Auzialdiko Epaitegiarena; beraz, handitu egin beharko litzateke, eta, horretarako, gainera, ez dago lekurik Barroeta Aldamar Jauregiko hirugarren eta laugarren solairuetan. Halaber, eskumen objektiboari buruzko arau baten bidez, organo judiziala familia-arazo berri guztiez arduratzen jarraituko luke, epaitegi horretan aurrekari dutenez. Horrek beste eragozpen bat dakar, eta eragozpen horri eutsiko litzaioke urte batzuetan. Kontuan izan behar da 14. zk.ko Epaitegiko erreformatu-batzordea oraindik ere familia-gaiak arduratzen dela aurrekarien arabera, 16 zk.ko Epaitegiaren sorreraren ondoren aurrekaririk gabeko gaiaren sartzea itxi eta hiru urte eta erdira.

3.- Azkenik, 14. zk.ko Epaitegiko magistratuak adierazi du, Batzarraren aktan jasotzen den bezala, Epaitegia benetan oztopatzen duena dela nahigabeko barneratzeek sortzen duten dedikazioa, zentro psikiatrikoetan zein egoitzetan, eta 72 orduko epean ebazpena izan behar dutenak, eta barneratuak abokatu-laguntzaren baliabidea egikaritzeko duen aukerarekin. Horren ondorioz, asteen hiru egun oso-osorik eman behar izaten ditu ebazteko, astelehen, astearte edo asteazkenean, eta goiz osoa hartzen diote. Prozedura horiek, oro har, barneratuari alta ematen zaionean amaitzen dira (kasu gehienetan), eta sei hilabetera berrikusi behar dira (barneratzea denboran mantentzen bada, hau da, oso portzentaje txikia), eta ez du aurrekaririk sortzen. Hori dela eta, Ikuskaritza Zerbitzuak proposatutako neurriaren ordezkari beste alternatiba bat aukera liteke, hots, barneratzeak Familiako Epaitegien artean banatu beharko lirateke, txandakako txanda bat sortzeko. Txanda horretan, hiru Familia Epaitegiek eta 14 zk.ko Epaitegiak berak asteka jardungo lukete. Beste aukera bat izango litzateke erreformatu-batzordea barneratzeen zati batez arduratzea, nahiz eta, gaur egun, Gobernu Salak berritzea eskatu duen, baina bere edukia ez du gai hau barne hartzen. Hori sei hilabeteko epean berrikusi daiteke”.

Osoko Bilkurak, Bilboko Lehen Auzialdiko Epaileen Batzarraren edukia eta Bilboko epaile dekanok jaunak egindako txostena kontuan hartuta, eta 2024rako Gobernu Salaren osoko bilkurak 2024ko martxoaren 26an onartutako Beharren Mapa Judizialean jasotako lehentasunezko beharrak ikusirik, Gobernu Salaren hasierako proposamenari eustea erabaki du, hau da, Bilboko Lehen Auzialdiko 17 zk.ko Epaitegiari esleitzea jurisdikzio zibileko gai ez-espezializatuaren ardura.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Ikuskaritza Zerbitzuak 2024ko azaroaren 14ko txostenean egindako proposamenari dagokionez, honek BJLOren 98. art.ko izapideak hasteko proposamen bat jasotzen zuen, organo horren Osoko Bilkurak 2021eko martxoaren 3an hartutako erabakia aldatzeko, non, Lehen Auzialdiko 16. Epaitegiaren (garai hartan sortu berria zena) gaiez arduratzeko

eremua finkatzen baitzen, hain zuzen ere, familiako gaiez arduratzeko igarotzeko. Horren harira, Osoko Bilkurak proposamen horren balorazioa atzeratzea erabaki zuen, Haur, Gaitasun eta Familia Atalak eratzea aurreikusten duen Justizia Zerbitzu Publikoaren Eraginkortasun Arloko Neurriei buruzko Lege Proiektutik eratorritako arau-esparru berriaren barruan aztertzeko.

Osoko Bilkurak erabaki du Erabaki horren edukia Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Ikuskaritza Zerbitzura bidaltzea eta Bilboko epaile dekanuari eta Bilboko Lehen Auzialdiko Epaileen Batzarrari jakinaraztea.

## **1.8 AUZITEGI NAGUSIAN KARRERA JUDIZIALEKO 73. PROMOZIOKO KIDEEK DESTINOAREN ZAIN EGOTEKO ERREGIMENEAN BETE DITZAKETEN LANPOSTUEN KOPURUA ETA BEHARRAK.**

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Langile Judizialen Zerbitzuak bidalitako jakinarazpenaren berri eman zaio Salari, eta hor destinoaren zain egoteko erregimenaren mekanismoaren bidez bete daitezkeen lanpostuen kopuru eta premiei buruzko txostena eskatu da, eta plazen lehentasun-hurrenkera ezarri behar da.

Jarraian, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak eskatutakoarekin bat etorritik, 2024ko azaroaren 26an presidente jaunak emandako txostenaren berri eman zaio Salari, hitzez hitz honako hau dioena:

*“Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Langileen Zerbitzuko eta Bulego Judizialeko Zuzendaritzak, Eskola Judizialeko 7. Promozioko kideak Karrera Judizialean sartzear daudelarik, presidenteari txosten bat eskatu dela jakinarazi zaio, destinuaren zain egoteko erregimenean bete daitezkeela uste duen beharrei eta lanpostu-kopuruei buruzkoa, lanpostu hutsen absentsia-egoerak dirauen bitartean. Auzitegi Nagusiei eta organoei atxikita gera daitezke.*

*Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Gobernu Salaren Osoko Bilkurak 2024ko martxoaren 26an onartutako Beharren Mapa Judizialaren arabera (ondoren erantsita doa), destinoaren zain dauden epaileen bidez bete beharreko beharrian judizial hauek eskatzen dira, zerrendatzen den lehentasun-ordenarekin:*

- Bi epaile Bilboko Auzialdiko Epaitegiatarako.*
- Donostiako Auzialdiko Epaitegiatarako epaile bat.*
- Barakaldoko Lehen Auzialdiko Epaitegiatarako epaile bat.*
- Epaile bat Bilboko lan-arloko epaitegiatarako*
- Donostiako zigor-arloko epaitegiatarako epaile bat, betearazpenaren zati bat eta prozeduraren zati bat hartuko dituen.*

Nagore Pérez Hierro andreak, Estefanía Carreño Nuñez andreak, Leire Muñoz de la Vega andreak, Ane Hidalgo Susaeta andreak eta Maite Arantzamendi Arrizabalaga andreak elkarrekin aurkeztutako idazkiaren berri eman zaio Salari, eta barruti judizial bakoitzaren beharrianak kontuan hartuta Euskal Autonomia Erkidegoan destinoaren zain egoteko plazak sortzeko aukera kontuan hartzeko eskatu zaio.

Halaber, Maite Arantzamendi Arrizabalaga andreak aurkeztutako idazkiaren eta Gasteizko epaile magistratuaren 2024ko abenduaren 12ko Erabakiaren berri eman zaio Salari. Honela dio hitzez hitz:

*“Gasteizko Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegiko indartze-jarduneko epaileak 2024/12/10eko idazkia aurkeztu ondoren, ireki bedi gobernu-espediente, eta, haren edukia ikusita, bidal bekio kopia bat presazko bidetik Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko gobernu idazkariari, 2024/12/13ko Gobernu Salaren Osoko Bilkurako gai-zerrendan ohiz kanpo sartzeko. Hona hemen proposamena:*

*Probintziarako DZE plaza sartzea (destinoaren zain dagoen epailea)  
Arabarako”*

Osoko Bilkurak, eztabaidatu ondoren, eta Gasteizko epaile dekanok jaunak helarazitako ordezen-arazoak kontuan hartuta, borondatezko ordezkorik ez dagoelako, ondoriozko balizko estaldura-arazoekin, Gasteizko epaitegiatarako epaile-plaza bat gehitzea erabaki dio presidente jaunak 2024ko azaroaren 26an egindako txostenari, destinoaren zain dauden epaileen bidez bete beharreko behar judizialei buruzkoa denari.

Osoko Bilkurak erabaki du Erabaki hau Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Langileen Zerbitzuko eta Bulego Judizialeko Zuzendaritzara bidaltzea, aurki sartuko baitira karrera judizialean Eskola Judizialaren 73. Promozioko kideak.

## **2.- Ordezko magistratuei eta ordezkoko epailei buruzkoa**

### **2.1 KANPOKO ORDEZKO EPAILEEI DEITZEKO IRIZPIDEAK BERRIKUSTEA**

Presidente jaunak Osoko Bilkurari jakinarazi dio ordezkoko epailei deitzeko irizpideen lehenengo artikulua aldatzeko proposamena, arrazoi pertsonal edo familiarrengatik baimenei buruzko A atalean. Honela dio, hitzez hitz:

*“12. 2/2011 Erregelamenduen 223. artikuluko e), f), g) eta h) idatz-zatietan aurreikusitako familia-egoeren ondoriozko lanaldi-murrizketen kasuetan”.*

Reyes Goenaga andreak proposatu du kanpoko epaile ordezkoiari dei egiteko kasu bat sartzeko lehen artikuluan eta A atal berean:

*“13. Organoaren titularra ospitaleratzea, lehen egunetik, ospitaleko alta eman ondoren Erregimen Orokorra aplikatuz”.*

